


Euskadiko gazteen % 15ek autoa pertsona ezezagunekin partekatuz bidaiatu dute, gastuak aurrezteko asmoz


Mutilek neskek baino neurri handiagoan bidaiatu dute horrela

Euskadiko gazteen % 3k askotan bidaiatu dute pertsona ezezagunekin autoa partekatuz gastuak murrizteko asmoz. Beste % 12k noizean behin bidaiatu dute horrela; beraz, guztira, bidaiaren batean autoa pertsona ezezagunekin partekatatu duten gazteen ehunekoa % 15ekoa da.



Auto pertsona ezezagunekin partekatzea ohikoagoa da mutilen artean (% 18) nesken artean baino (% 12).

Gehiago bidaiatu dute horrela 20 urtetik gorakoek, adin horretara heltzen ez direnek baino (15 eta 19 urte birtartekoek % 10ek partekatatu dute autoa bidaiaren batean; 20 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, aldiz, % 17k).



Adinarekin nolabait lotuta, ikus daiteke gazteen ikasketa maila altuagoa izan ahala, handiagoa dela, bidaiaren bateko gastuak aurrezteko, autoa pertsona ezezagunekin partekatu dutela diotenen ehunekoa: % 6 derrigorrezko ikasketa-maila, hau da DBH, ikasten edo bukatuta dutenen artean; % 13 bigarren mailako ikasketak (Batxilergoa edo lanbide heziketako erdi-mailako zikloa) dituztenen artean; eta %17 goi-mailako ikasketak (unibertsitate ikasketak edo lanbide heziketako goi-mailako zikloa) dituztenen artean.

Bestalde, autoa pertsona ezezagunekin partekatuz bidaiatzea sarriago egiten da gazteen maila soziala baxuagoa den heinean (maila altuko edo erdi altuko gazteen %14k eta maila baxuko edo erdi-baxukoak direnen % 19k bidaiatu dute horrela inoiz).

Aipatutako datuok [Gazteen Euskal Behatokiak](#) 2013ko abenduan eginiko inkesta baten emaitzak dira. Inkesta hori kontsumo ohiturei buruzkoa zen eta burutzeko 15 eta 29 urte bitarteko 1500 gazte elkarrizketatu ziren Euskadi osoan.

Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!

